



Ale honetan

Aurkezpena 1

Gai monografikoa

Luis Mari Txabarri A1 mailaren inguruan 3

Bestelako lankidetzak

Josu Perales Antsietatea H₂ ikasteen: gaiari berriz helduz 40

Jovi Diaz Ikaslearen autonomia H₂ren ikasgelan. Gogoetarako jarrera eta giro afektiboa ikaste ekologiko-eraldatzailearen ardatzak 75

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta Pk:

Probintzia:

**Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2011an hiru ale:
14,40 €. Honela ordainduko dut:**

N.A.N.:

Kontu korrante bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

HABEren izenean luzaturiko txekez



**Helbide honetara bidali behar da:
HIZPIDE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABE aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6, 20018 Donostia.



Aurkezpena

Hona hemen, irakurle, Hizpide aldizkariaren 79. alea. Begira diezaiogun, ohi bezala, mamiari.

Gai monografikoa.– Lehenengo artikulua Luis Mari Txabarri HABEko teknikariak idatzi du: “*Al mailaren inguruan*” du izenburu eta alde-raketa-lan xehea da. Artikulugileak lau kurrikuluz proposamen darabiltza aztergai: 1) John Trim-ek paratu eta EALTaren WEBgunean eskuragai dagoena; 2) Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialetarako Oinarrizko eta Maila Ertaineko curriculak ezartzen dituen 31/2007ko Ebazpena, ekainaren 14koa; 3) Cervantes Institutuaren “Plan Curricular del Instituto Cervantes”, eta 4) Generalitat de Catalunya-ko, Direcció General de Política Lingüística-k osatutako “Programa de Llengua Catalana, Nivell inicial”.

Egileak berak dioskunez, badira beste hainbat proposamen aztertu eta elkarrekin alderatzeko aukeratu zitzaizkienak, baina lau horiek Europa Erreferentzia Markoa argitaratu ondorengoak dira, eta beraz, egileek badute Markoaren berri. Interesgarria da, ondorioz, Markoaren zein alderdiri erreparatu dioten eta zeini ez begiratzea. Halaber, lau proposamen horiek elkarrekin alderatuta ondoriozta daitezkeen mesedegarria da, ez bairik gabe, Helduen Euskalduntze-alfabetatzeari begira.

Aldeak alde, lau proposamenak komunikazio-beharretatik abiatzen dira; ez hizkuntzaren egituratik. Eta, hala berean, proposamenen egileek biziki azpimarratzen dute tokian tokiko inguruneak aintzat hartzeko beharra xede-hizkuntza irakastean. Alderaketa maila makrokurrikularrean dago eginda, marko orokor batean. Izan ere, lau proposamenak ere horrela daude eginda. Gerora etorriko dira ikastetxe bakoitzari dagozkion egoitzapenak baita ikasgela bakoitzean ere egin beharrekoak ere.

Ez da eduki bera lantzen lau dokumentuetan. Ez dira ordu-kopuru berberak proposatzen... Artikulugileak xeheki eskainiko du zer-nolako horien guztien berri, dagokionean proposamenok zertan datozen bat eta zertan ez bistaraziz. Badago, beraz, zer hausnartu eta jorratu alor honetan ere.

Bestelako lankidetzak.– Bigarren artikulua Josu Perales HABEko teknikariaren eskutik dator. Artikuluaren izenburua: “*Antsietatea H₂ ikasteen: gaiari berriz helduz*”. Antsietatea ikaslearen baitako aldagai funtsezkoenetako bat da, ikerketa askotan aintzat hartua. Ez dira gutxi H₂ zerbait esan behar dutenean estutu egiten diren ikasleak. Beldur dira barregarri geldituko ote diren errakuntza errakuntzaren gainean eginez, oker ahoskatuz, jardungo dutelakoan. Sentipen horiek beroiek, bistan da, ez diote mesede handirik egiten komunikazioari. Jorratua du lehen ere egileak herztura edo antsietatearen gaia aldizkari honetan.

Oraingo ekarpenean, gaiari berriro helduz, antsietatearen nondik norakoak jorratzen ditu, ikaslearen antsietateak merezi duen arreta piztu nahirik. Agerikoa da hizkuntzak ikastean alderdi psikologikoak duen eragina. Eta alderdi horretatik, hain zuzen ere, heldu dio gaiari. Horrela bada, antsietate-motak, ansietateak hizkuntz jokabidean dituen ondorio kaltegarriak, antsietateak hartutako ikaslearen jokabide-zantzuak eta antsietatea murrizteko irtenbideak mintzagai dira hemen. Era berean, helduen euskalduntze-alfabetatzean burututako bi azterlanen emaitzei begirada ere egiten zaie.

Beste hizkuntza-inguruetan burutu diren azterlanetan ikusi denez, ezin esan daiteke urduritasun-puntu bat kalterakoa denik. Aitzitik, aldeko eragina duela sumatu da. Antsietate sustatzaile edo adore emaitze izenda liteke antsietate-mota hori. Baina ez dakigu oraindik antsietatearen eragin mesedegarria eta kaltegarria bereizten dituen langa hori zehatz non lekutzen den. Seguruenik norbanako bakoitzak izango du bere hersturlanga propioa. Hemen, usadiozko literaturari jarraikiz, antsietatearen eragin kaltegarriari begiratu zaio, batez ere.

Hirugarren artikulua Jovi Diaz irakasleak paratu du eta Deustuko unibertsitatean burutu duen doktore-tesian dago oinarritua. Artikuluaren izenburua: *“Ikaslearen autonomia H₂ren ikasgelan. Gogoetarako jarrera eta giro afektiboa, ikaste ekologiko-eraldatzailearen ardatzak”* Artikulugileak, metodologia kualitatiboa erabilita, 20 hizkuntza ikasle europarren datuak jaso zituen. Ikasle gehienak Erasmus programakoak ziren, hainbat naziotakoak, eta, gaztelania zuten ikasgai. Doktore-tesian ikergaia zen ikasleen pentsamendua, beren ikas-prozesuaren gainekoa. Halatan, alderdi metakognitiboa, usteak, motibazioa... aztertu zituen artikulugileak. Berak plazaratutako emaitzen arabera, berriro jarri da agerian hizkuntza ikasteen giro adeitsuak, elkarlanak, irakaslearen eta ikasleen arteko harreman gertukoak, besteak beste, aldeko eragin nabarmena dutela hizkuntzak ikasteen.

Horra hor, irakurle, alearen mamia. Hizpidek probetxuzkoa izan dakizula opa dizu.